**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(15.12.09)**

INGURUMENEKO ZINEGOTZIA:
JOSÉ LUIS LANDA jauna

INGURUMENEKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jauna

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA andrea

INGURUMENEKO AHOLKULARIAK:
JULEN REKONDO jauna
EUGENIA ATIN andrea

ETORRI DIRENAK:

JAVIER GALÁN jauna (Getxo Enpresako presidentea).
CELIA MARAÑON andrea (Ekologistak Martxan).
DIMAS RAMOS jauna (Kirol Elkarteak).
XABIER BUENETXEA jauna (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)
TOMI ETXEANDÍA jauna (Eskola Agenda 21 eta San Nikolas Ikastetxeko irakaslea).
NATIVIDAD MORALES andrea (Gizatiar elkarteko ordezkaria).
CARLOS ARANA jauna (Europak erakundearen ordezkaria).
AGURTZANE OLAIZ EGURROLA andrea (Eskola Agenda 21 eta Romoko ikastetxe publikoko irakaslea).
AMELIA ZORRILLA andrea (Basozaleak elkarteko ordezkaria).

Ondokoek ezin izan dute etorri: JUANJO QUIÑONES jauna (Urtealaiaken ordezkaria), KOLDO NABASKUES jauna (Urkoa kontsumitzaile elkartearen ordezkaria), JOSU INTXAURRAGA jauna (Itxartu Taldea), eta JOSÉ GÓMEZ jauna (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona).

Getxon, 2015eko abenduaren 9an, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

**AZTERGAIEN ZERRENDA**

Batzarraren hasieran, Julen Rekondo jaunak adierazi du aipatutako foroko kideetako batzuek ezin izan dutela etorri. Batzarrean erabiliko den metodologia azaldu du (lehenago eman da jakitera).

**1.- 2015-2019ko Ekintza Plana egitea**

5. ildo estrategikoan (INGURUMEN KALITATEA ETA BALIABIDEEN ERABILERA IRAUNKORRA) dauden proposamenekin hasi gara.

ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE
(09.12.15)

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSÉ LUIS LANDA

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª. ARANTZA CABEZA.

CONSULTORES MEDIOAMBIENTALES:
D. JULEN REKONDO
Dª EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

D. JAVIER GALÁN (Presidente de Getxo Enpresa).
Dª. CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan).
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas).
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).
D. TOMI ETXEANDÍA (Agenda Escolar 21 y profesor de la Ikastola San Nikolas).
Dª NATIVIDAD MORALES (Representante de la Asociación Gizatiar).
D. CARLOS ARANA (Representante de Europak).
Dª. AGURTZANE OLAIZ EGURROLA (Agenda Escolar 21 y profesora del Colegio Público de Romo).
Dª AMELIA ZORRILLA (Representante de Basozaleak)

Excusan su no asistencia, D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak), D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asoiación de Consumidores Urkoa), D. JOSU INTXAURRAGA (Itxartu Taldea), y D. JOSÉ GÓMEZ (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).

En Getxo, a 9 de diciembre de 2015. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, D. Julen Rekondo excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados, y explica la metodología que se va a utilizar en la reunión que se ha pasado previamente.

**1.- Elaboración del Plan de Acción 2015-2019**

Se comienza con las propuestas referidas a la LE 5: CALIDAD AMBIENTAL Y UTILIZACIÓN SOSTENIBLE DE LOS RECURSOS.

**URAREN KUDEAKETA**:

Oro har adostasun nahikoa dago: Uraren Kudeaketari buruz 2012-2015eko Ekintza Planean azaldu diren ekintzak nahiko ondo daude. Halere, ondoko iruzkinak egin dira:

- Iturri publiko gehiago hiriko edota hiri inguruko parkeetan.
- Ingurumen heziketako kanpainak uraren kontsumoaren inguruan. Haien premia dagoela adierazi da. 21 Eskola Agendan azaldu da zenbait ekimen egin direla gaiaz.
- Gainera, azaldu da kaleak sareko uraz ureztatzea ura alferrik xahutzea dela.
- Ur beltzen sarea eta euri-urena bereiztea beharrezkoa da. Gai horri heltzeko, epe labur, ertain eta luzeko plan bat egin behar da.
- Era berean, plan bat egin da, 15 urteko epean sareko ihesak eta galerak ahalik eta gehien murrizteko.
- Etorkizunean egiten diren eraikuntzetan (adibidez, aparkalekuetan), asfaltoa jarri beharrean material porotsuak erabiltzea proposatzen da, ura iragazi edo isuri ahal izateko, eta horrela akuiferoak elikatzeko.
- Foroko pertsona batek galdetu du, aurretik ere inoiz egin duenez, Getxoko igerilekuak desinfektatzeko orduan gatzak erabiltzen ote diren, kloroa eta bromoa erabili beharrean, bere ustez kaltegarriak direnak.
- Pertsona horrek, galdera hori aurreko foroetan egin duenak, uretan fluorra botatzearen aurkakoa dela esan du.

**GESTIÓN DEL AGUA**:

En general, hay bastante acuerdo en que las acciones formuladas en el Plan de Accción 2012-2015 en relación a la Gestión del Agua están bastante bien. No obstante, se apuntan las siguientes cuestiones:

- Más fuentes públicas en los parques urbanos y/o periurbanos.
- Campañas de educación ambiental en torno al consumo de agua. Se apunta de su necesidad. Desde la Agenda Escolar 21 se explica que se llevan a cabo diversas iniciativas al respecto.
- También se plantea que es un despilfarro el riesgo de las calles con agua de la red.
- Se plantea la necesidad de la separación de las redes de fecales y pluviales. Es necesario realizar un plan a corto, medio y largo plazo para acometer esta cuestión.
- También la elaboración de un plan para que en 15 años se reduzcan al mínimo las fugas y pérdidas de la red.
- En futuras construcciones (por ejemplo aparcamientos), en lugar de asfalto, se propone la utilización de matriales porosos que permitan que el agua se filtre o fluya y que alimente los acuíferos.
- Una persona del Foro pregunta, ya lo ha hecho en alguna otra ocasión, si en la desinfección de las piscinas de Getxo se utilizan sales en vez de cloro y bromo, que considera que son perjudiciales.
- La misma persona, que lo ha manifestado en anteriores foros, se manifiesta en contra de la fluoración de las aguas.

**HONDAKINEN KUDEAKETA:**

Era berean, 2012-15eko Ekintza Planeko ekintzak nahiko ondo daudela ulertzen da, nahiz eta haietako batzuk eguneratu behar diren. Alde horretatik, honako hauek aipatu dira:

- Hiri hondakinen zati organikoaren gaikako bilketa udalerri osoan ezartzea, 5. edukiontzi marroiaren bitartez.
- Autokonpostatzea eta komunitate-konpostatzea sustatzea.

Gainera, zati organikoa biltzeko 5. edukiontziaren erabiltzaileei zabor-tasan hobari bat eskaintzeko aukera proposatu da, Gipuzkoako hainbat udalerritan egiten denez, 5. edukiontzia sustatze aldera.

Eztabaida piztu da **"Zabor tasak jartzeko aukera aztertzea, hiri hondakinen sorreraren arabera"** ekintzarekin, besteak beste oso konplexua suerta daitekeelako. Baina argitu da ekintzan "....**aztertzea**" idatzi dela.

Informazio arazoak ere planteatu dira hondakin batzuk gaika biltzeari dagokionez. Horregatik, bizilagun batzuek ez dakite nola birziklatu. Era berean, azaldu da editatutako hiruorrikoren bat, zuzena izan arren, nahasgarria izan litekeela birziklatzeko moduari buruz.

Azpimarratu da Berziklatu bezalako erakundeek lan ona egiten

**GESTIÓN DE RESIDUOS:**

Se considera también que las acciones del Plan de Acción 2012-15 están bastante bien, aunque hay que actualizar algunas de ellas. En este sentido se apuntan las siguientes:

- Implantación de la recogida selectiva de la fracción orgánica de los RU en todo el municipio a través del 5ª contenedor marrón.
- Fomento del autocompostaje y del compostaje comunitario.

También se apunta la posible bonificación en la tasa de basuras a los usuarios del 5ª contenedor de recogida de la Fracción Orgánica, como ya se hace en bastantes municipios guipuzcoanos, para su fomento.

Hay un cierto debate con la acción "**Estudiar el establecimiento de las tasas de basura en base a la generación de residuos urbanos",** entre otras cuestiones, por lo complejo que puede resultar. Pero se viene a decir que lo que pone en la acción es "estudiar……".

También se plantean problemas de información en cuanto a la recogida selectiva de algunos residuos, y ello ocasiona que haya vecin@s que no sepan cómo reciclar. Igualmente, se dice que en algún tríptico editado, a pesar de ser correcto, podía dar lugar a confusión sobre cómo había qué reciclar.

Se destaca la buena labor de organizaciones como Berziklatu

dutela, besteak beste etxeko tresna elektrikoak behar bezala berrerabiltzea lortzen dutelako.

que entre otras cosas, consigue una adecuada reutilización de electrodomésticos.

Foroko pertsona batek planteatu du Garbiguneek ez dutela berrerabilera mesedetzen eta ez dutela ia birziklatzen. Josu Ateka jaunak erantzun dio ez dagoela ados birziklatzen ez dutela esatearekin, % 80ra iristen baita. Beste kontu bat da berrerabilera, baina Garbiguneak ez ziren horretarako sortu.

Hay una persona del Foro que plantea que los Garbigunes no favorecen la reutilización y que apenas reciclan. D. Josu Ateka le responde que no está de acuerdo en que no se reciclan, ya que se llega al 80%. Otra cuestión es la reutilización, que no están concebidos para ello.

Adierazi da oso garrantzitsua dela jatorritik bertatik murriztea; horrek ahalegin bat eskatzen du materialen erabilera murrizteko, ekoizpen industriala aldatuz eta soberan dagoena zer den jakinik. Zabor asko desagertuko litzateke baldin eta Eusko Jaurlaritzak ontziei buruzko eskumenak edukiko balitu.

Se señala la importancia de la reducción desde el origen que implica un esfuerzo para reducir el uso de los materiales modificando la producción industrial y siendo conscientes de lo que sobra. Nos quitaríamos mucha basura si el Gobierno Vasco tuviera las competencias sobre el envase.

Banakako edo komunitateko konpostagailuen arriskuez ohartarazi da, osasunerako kaltegarriak izan daitezkeelako.

Se advierte del peligro de los compostadores individuales/ comunitarios por sus implicaciones en la salud, se precisa de “maestros compostadores”.

Esan da ez dagoela informaziorik pilak biltzeko puntuei buruz (150 denda baino gehiago eta bi edukiontzi kalean). Lehen dendek erakusleihoetan jarri ohi zituzten pegatinak berriro erabiltzeko aukera proposatu da.

Se plantea que no hay información sobre los puntos de recogida de pilas (más de 150 comercios y dos contenedores en las calles). Se considera la posibilidad de volver a utilizar las pegatinas que antes ponían los comercios en los escaparates.

Sendagaiak birziklatu beharrari buruz kontzientzia sortu beharra ere azaldu da.

También se plantea la necesidad de concienciar sobre el reciclaje de los medicamentos.

Azkenik, ikastetxeetan edukiontzi bereziak jartzea komeni den edo ez eztabaidatu da. Edukiontzi horiek kaleetan daudenen berdinak izango lirateke, umeak elementu errealekin hezteko. Beste alde batetik, garrantzitsua da, era berean, edukiontzi horien kokalekuaren berri ematea, heziketa moduan.

Por último, se debate sobre la conveniencia o no de instalar contenedores específicos en los centros escolares, que repliquen los de la calle, para educar con elementos reales. Por otro lado, también es importante educar en dónde se encuentran dichos contenedores.

**KALITATE AKUSTIKOA:**

**CALIDAD ACÚSTICA:**

Isilgailurik gabeko motozikletek ateratzen duten zaratari buruzko ordenantza betetzearen garrantzia aipatu da. Motordun ibilgailuen zarata-kontrolak egitea komeni den eztabaidatu da, alkoholarekin eta drogekin egiten den bezala.

Se señala la importancia de que se cumpla la ordenanza relativa al ruido ocasionado por las motocicletas sin silenciador. Se debate sobre la conveniencia de realizar controles de ruido para los vehículos a motor como se hacen en la actualidad de alcohol y estupefacientes.

Gainera, eskailera mekanikoen ordutegia ere bete behar da, zarata ateratzen baitute.

También se debe cumplir con el horario de funcionamiento de las escaleras mecánicas ya que ocasionan ruidos.

Abiadura murrizten duten gomazko bandak oso zaratatsuak dira, batez ere gauean, eta asfaltozko badenekin ordezkatzea proposatu da.

Las bandas de goma anti-velocidad son muy sonoras, especialmente de noche, y se propone sustituirlas por badenes asfaltados.

Zarataren Mapa amaituta dago; orain Ekintza Plana onetsi behar da.

El Mapa de Ruido ya está confeccionado y ahora hay que aaprobar el Plan de Acción.

**ENERGIA:**

**ENERGÍA:**

Foroko kide batek proposatu du Getxok Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana egin dezala, eta Errenterian egin zena jarri du adibide. Zehazki, Alkateen Itunak berau sinatu zuten udalerri guztiak Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana egitera behartzen ditu, udalerriko berotegi-efektuko gasen emisioak 2020. urtea baino lehen % 20 baino gehiagoan murriztea ahalbidetzen duen ekintza-programa batekin, “oinarrizko urtetik” abiatuta

Un miembro del Foro propone la elaboración en Getxo de un PAES (Plan de Acción para la Energía Sostenible), y pone como ejemplo el caso del que se elaboró en Errenteria. Concretamente, el Pacto de los Alcaldes compromete a todos los municipios firmantes a elaborar un Plan de Acción para la Energía Sostenible (PAES), con un programa de acciones que permita la reducción en más de un 20% las emisiones de gases

(Errenteriaren kasuan 2006a da). Era berean, ekintza planaren jarraipen txostena aurkeztu behar dute urtero.

de efecto invernadero del municipio antes de 2020, respecto al denominado "año base" que en el caso de Errenteria es el 2006. Así como a presentar anualmente un informe de seguimiento del plan de acción.

Josu Ateka jaunak erantzun dio behin proposatu egin zela. Une hartan bi udal handi bakarrik zeuden konprometiturik, eta gainera datu-bilketako lan eskerga egin behar zen, enpresa baten laguntza behar zen dena abiatu eta kudeatu ahal izateko, eta horrenbestez horretarako aurrekontu-partida bat eduki behar zen. Horregatik, bertan behera uztea erabaki zen, eta etorkizunean eboluzioa ikusita berriro planteatu ahalko zela.
Oro har, gai honetan, aurrekoetan bezala, adostasuna nahiko zabalduta dago: 2012-2015 Ekintza Planean proposatutako ekintzak nahiko ondo daude.

D. Josu Ateka le responde que en su día se planteó y además de que en aquél momento estaban comprometidos solo dos grandes ayuntamientos, había que realizar una labor ingente de recogida de datos, se necesitaba contar con el apoyo de una empresa para poderlo poner en marcha y gestionarlo y en consecuencia contar con una partida presupuestaria para ello…es por lo que se pensó dejarlo en suspenso y que en un futuro, viendo la evolución se podría volver a plantaear.
En general, en este tema, al igual que en los anteriores hay bastante acuerdo en que las acciones formuladas en el Plan de Accción 2012-2015 están bastante bien.

Hona hemen interesgarritzat jotzen diren beste alderdi batzuk:

- Migrazio aldietan, zona jakin batzuetan, adibidez Arrigunaga, La Galea etab, argiak murriztu beharko lirateke, agian guztiz kendu ere bai, hegaztiengan eragin handia dutelako. Ekimen hau interesgarria izan liteke udalarentzat ere: neurri honetan aitzindaria izatean, publizitatea jasoko luke. Proposamen hau egin duen pertsona berak Fadurako futbol zelaiaren kasua ere aipatu du: oso berandura arte daude argiak piztuta, nahiz eta inor ez egon kirola egiten. Erantzun zaio sentsoreak jarri direla eta 22:00ak arte argiak daudela.
- Energia Eraginkortasun Plana Udal Eraikinetan.
- Energia berriztagarriak jartzeko salbuespena.
- Eraikinetako isolamendu eta itxituren garrantzia, haien energia-ziurtapena hobetzeko.
- Hobariak isolamendu egokia jartzen duten erkidegoentzat.

Otros aspectos que se consideran de interés:

- En las épocas de migración, en determinadas zonas como la playa de Arrigunaga, La Galea, etc., debería de reducirse e incluso no iluminarse, ya que afecta mucho a las aves. Esta iniciativa incluso podría ser interesante para el Ayuntamiento, al ser pionero con esta medida, al publicitarse. La misma persona que plantea esta propuesta, cita también el caso del Campo de Fútbol de Fadura donde está iluminado hasta muy tarde y sin que haya actividad deportiva. Se le responde que ahora se han colocado sensores y hasta las 22,00h. hay iluminación.
- Plan de Eficiencia Energética en Edificios Municipales.
- Exención para la instalación de Energías Renovables.
- Importancia de los aislamientos y cerramientos en edificios, que incrementen su certificación energética.
- Bonificaciones para las comunidades que aíslen adecuadamente.

**KUTSADURA ELEKTROMAGNETIKOA**:

Foroko kide batek esan du, aurreko batzarrean aipatu zenaz gain, neurriak hartu behar direla behin betiko.

Getxon, 21:00etan amaitu da bilera.

**CONTAMINACIÓN ELECTROMAGNÉTICA**:

Un miembro del Foro plantea que además de los que se dijo en la anterior reunión, es necesario que se adopten medidas al respecto de una vez por todas.

En Getxo, a las 21,00 horas se da por finalizada la reunión.